



4. AKTA

2005eko apirilaren 1eanegindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila bosteko apirilaren batean.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Bere ezin etorria adierazi du Lucía Querido Noceti a. zinegotzia oportetan baitago.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 9,00retan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzaraldietako aktak 2. eta 3. 05-2-23koa eta 05-03-02koa, hurrenez hurren, irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen diren aktak aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- 05/2 fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.:2/05

Zenbatekoa: EHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMO (155.893,44 euro).



3.- Gizarte-beharrizan Larrietarako Laguntzen aldaketak.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2005eko martxoaren 1ean aurkeztutako proposamena, EJ 1/05, proposamenari dagozkion Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Aldaketei buruzkoa aztertuta; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat 1/05 proposamenari dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak ezeztatuz.

BIGARREN.- Aipatutako kopuruak Gizarte Larrialdietako partidari sartzeari.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontu-hartzailera Sailari ematea.

4.- “P. Donibaneko Lezo-Bide kalearen 1. fasearen urbanizazioaren” obraren 1. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: “P. Donibaneko Lezo-Bide kalearen 1. fasearen urbanizazioa”

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HAMABOST MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA HIRUROGEITA SEIS ZENTIMO (15.770,66 euro).

Indarrengo udal aurrekontuko D-1362/04 Disposamenduaren kargura.

5.- “Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio proiektua” obraren 4. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 4

Obra: “Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio proiektua”



Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES ARKAITZA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMA ZAZPI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (37.295,33 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1237/04 Disposamenduaren kargura.

6.- “Bizkaia Plaza Urbanizazioaren” obraren 8. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 8

Obra: “Bizkaia Plaza Urbanizazioa”

Obra-zuzendariak: Eduardo Ramos Platón j.

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA BEDERATZI MILA EURO ETA BERROGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (29.056,49 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-510/04 Disposamenduaren kargura.

7.- “Trintxerpeko Goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren” obraren 9. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 9

Obra: “Trintxerpeko Goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntza”.

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: EHUN ETA BERROGEITA SEI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMA ZAZPI EURO ETA LAU ZENTIMO (146.277,04 euro).



Indarreango udal aurrekontuko D-379/04 eta D-380/04 Disposamenduaren kargura.

8.- “Molinao Errekaren urbanizazioaren 1. fasea-P. Antxo” obraren 4. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 4

Obra: “Molinao Errekaren urbanizazioa 1. fasea-P. Antxo”

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMASEI MILA EHUN ETA BERROGEITA BI EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (46.142,53 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1238/04 Disposamenduaren kargura.

9.- “Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea” obraren 10. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 10

Obra: "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea "

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGETA HAMASEI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA ZAZPI ZENTIMO (36.389,07 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-377/04 Disposamenduaren kargura.

10.- “Puntas Pasealekuaren 1. fasearen urbanizazioaren” 1. ziurtagiria.



Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: “Puntas Pasealekuaren 1. fasearen urbanizazioa”

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HEMEZORTZI MILA BEDERATZI EHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (38.957,47 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1592/04 Disposamenduaren kargura.

11.- Erregai hornidura instalazio-lizentzia eskaera Donibaneko kaian. Repsol.

Javier Errasti Flaño jn.ak, REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS, S.A.ren izenean, 2005-01-05ean eta 2005-01-24an instalazio-lizentzia (behin-behinekoa) eskatu zuen Donibaneko moilako kaildean itsasontzientzako erregai-hornitegi jarduera jartzeko, hain zuzen ere, Koxtape Arraun Elkartea eta badiaren artean dagoen orubean.

Instalazioaren kokalekuari dagokionez, ez dute aurkeztu udal kartografian oinarritutako planorik; eta hirigintza aldetik ere ez dute instalazioa justifikatu, indarrean dagoen araudiarekin bat; beraz, instalazioaren kokalekua eskuz marraztu da. Horren arabera, jarri nahi duten instalazioa bi hiri eremutan kokatuta dago: 4.08.01 eta 4.08.04, lehenengoa gizarte, kultura eta jolas ekipamenduetarako eremua da gainera.

Bestalde, une honetan bideratzen ari da Pasaiako Arau Subsidiarioetako hainbat Elementuren Aldaketa, eremu horri buruzkoa. Aldaketa horren arabera, tanke horietarako proposatu duten kokalekua araudi berrian jasotzen den pabilioi baten azpian dago, hain zuzen ere gizate-ekipamenduko partzelaren alboan. Beraz, hirigintzako egoera eta kokaleku fisikoa kontuan hartuta, ezinezkoa da eskatutako instalazio horri baimena ematea.

Aurrekoaz gain, eta plangintzarekin bat, bi araudiak aplikatu beharrekoak dira, egoeraren arabera.

Udal teknikariak eskaeraren aurkako txostena egin zuen 2005eko otsailaren 17an.

Aurreko guztia ikusirik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

Proiektua planeamenduari egokitzeari buruzko udal txostena egin aurretik, eskatzaileari eskatuko zaio beste kokaleku bat proposatzeko, planeamenduarekin bat datorrena, eta kokaleku hori udal kartografian islatzeko.

12.- Gaztelutxo baserri ondoan asto-ganadua ustiatzeko jarduera egokitzeko eskaera.

Patxi Sein Etxarrik 2003ko irailaren 16ko erregistro-datarekin obra-lizentzia eskatu zuen Gaztelutxo baserritik gertu asto-ganadua ustiatzeko jarduera gaitzeko eta horretarako proiektua aurkeztu zuen. Proiektuan ageri den nabearen oina 12,40x9,70 m-koa da, gailurrerainoko altuera 4,31 m-koa eta teilatu-hegalerrainokoa 3,05 m-koa.

Mendebaldeko fatxadan 2 m-tik 4 m-ra arteko harri-lubeta eraiki nahi du; aurreikusita dago ustiatzegira sartzeko bideak hormigoizkoak izatea, ura biltzeko arekarekin. Gainera, ezpondetan bertako arbolak landatu nahi ditu.

Halaber, ezponden egonkortasuna hobetzeko eta lurrazalaren drainadura egokitzeko proiektua aurkeztu du. Horrez agin, proiektuan ganaduarentzako aterpe bat eraikitzea ere aurreikusten da. Proiektu hori Igone Ortuzar Garcia nekazaritzako ingeniari teknikoak idatzi zuen 2003ko abuztuan.

Euri-ura bildu eta kanalizatzeko beharrezkoak diren obrak egitea proposatzen da, bai goiko bidekoa eta bai Gaztelutxo baserriko lursailekoa. Gainera, lur-jausiak izan dituen lursaila finkatzea proposatzen da.

Lan horien ordainetan, eskatzaileak asto-ganaduarentzako ikuilu bat eraikitzea proposatzen du.

Aipatutako lur horiek Pasaiako Hirigintza Arauetarako Jaizkibel Mendia 1.05 HJE eremuan kokatuta daude eta hirigintzako erregimenari dagokionez, lurzoru urbanizaezin gisa dago sailkatuta.

Proposatutako eraikina *D.1.1 natura eta paisaia aldetik interesa dutenak* delako gunean dago eta horietarako Arau Subsidiarioek ondokoa ezartzen dute:

“D.1.1. NATURA ETA PAISAIA ALDETIK INTERESA DUTENAK.

Zona landatarrak dira, Hirigunetik hurbil egotean eta dauzkaten ezaugarri fisikoak edukita, ekintza ororen eragina nabarmenki pairatuko luketenak hala ingurugiroan nola ikuspenean.

Hauen egoerari hertsiki eustea eta beren osotasunean babestea proposatzen da.

1.-ERAIKUNTZARAKO ERREGIMEN OROKORRA.

Eraikuntza mota guztiak debekaturik gelditzen dira. Salbuespena zerbitzuen azpiegituretarako diren instalazioekin egingo da, baina orduan Udalaren baimen berezia beharko da beren eragina aztertu eta bestelako kokapenik hartzea ezinezkoa dutela baloratu ondoren.

Arau hauei haserako onarpena eman aurretik jada dauden eraikuntzak finkatuta uzten dira, bai eta horietan garatzen diren erabilera baimenduak ere.

Eraikuntza erantsi guztiak, txabolak eta itsatsiriko beste eraikin oro ordenazioz kanpo jotzen dira eraikuntza hauen tradiziozko irudia eta beren haserako tipologia aldarazten badute. Eraikuntza hauek Arau hauen 123. artikulua dioena eta lurzoru landatar arruntean (D.2.) ezartzen diren etxebizitzetarako aplikagarri diren xedapen arau-emaile guztiek ohartemandakoa jarraitu beharko dute.

2.- ERABILERARAKO ERREGIMEN OROKORRA.

Erabilera nagusia: - *ESPAZIO LIBREAK* eta aisiarakoak, bertako espazioa, fauna eta floraren zainketa, mantenimendu eta berreskurapena, eta berauen ustiapen kontrolatua.

- *BASO-erabilera.*

Erabilera baimenduak:- ZERBITZUEN AZPIEGITURETARAKO erabilerak ur-hormiduraren modalitatean.



- NEKAZARITZA ETA ABELAZKUNTZAREN USTIAPENERAKO erabilerak, Arau hauek onartu aurretik jada leudekeen kasuetan soilik.
- Etxebizitza erabilera ustiategi horien osagarri gisa, Arau hauek onartu aurretik jada leudekeen kasuetan.
- EKIPAMENDU KOMUNITARIOko erabilera.

Erabilera debekatuak: - Gainontzeko guztiak” (.)”

Hirigintzako Teknikariak 2005eko urtarrilaren 14an ondorengo dokumentazioa eskatu zion: “Hirigintzako Ordenantzen arabera, abeltzaintza-ustiapen jarduera hori tramitatzeko, dokumentazioa aurkeztu beharko luke, jarduera Planeamenduko Arau Subsidiarioak onartu aurretik bazegoela egiaztatzen duena.”

Urtarrilaren 18an Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako Ustiategiaren Erroldako ziurtagiriaren fotokopia aurkeztu zuen. Zerbitzu horrekin kontsultatu ondoren, interesdunak errolda horretan 1997ko maiatzaren 7an alta eman zuela egiaztatu dugu. Pasaiako Arau Subsidiarioak 1996ko irailaren 13n argitaratu ziren, eta ondorioz, Patxi Sein Etxarrik Arau Subsidiarioak indarrean sartu baino lehen aipatutako abeltzaintzako ustiapen jarduera ez zuen.

Ingurumena babesteko 3/1998 Legeak xedatzen du ezin dela obra-lizentziarik eman aurrez jardueralizentzia eskuratu baino lehen. Kasu honetan, hirigintzako araudiak ez du baimentzen proposatutako jarduera izatea.

Aurreko guztia ikusirik, Tokiko Gobernu Batzarrak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Patxi Sein Etxarrik Gaztelutxo baserriak gertu dagoen lursail batean asto-ganadua ustiatzeko eskatu duen jardueralizentziaren tramitazioari EZ EKITEA; izan ere, Hirigintzako Ordenantzek eremu horretan eraikin berriak egitea debekatzen dute; gainera, nekazaritza-eremua da eta hirigunetik hurbil egonda eta dauzkan ezaugarri fisikoak edukita, ekintza orok eragin nabarmena izango luke, hala ingurugiroan nola ikuspenean.

BIGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren; kontuan hartuta salbuetsitako jarduera jarri nahi zen tokiak 120,28 m²ko azalera zuela.

HIRUGARRENA.- Bestalde, euri-ura biltzeko eta kanalizatzeko (goiko bidekoa eta Gaztelutxo baserrikoa) eta lur-jausiak izan dituen lursaila finkatzeko, ondoko agiriak aurkeztu behar dira: oraingo egoera agertzen duten argazkiak eta aurreikusitako lanen aurrekontua.

LAUGARRENA.- Idazkaritzari eskatzea azter dezala juridikoki bideragarria ote den eskatzailearen partzela Jaizkibel mendian dagoen beste udal partzela batekin trukatzea, bertan abeltzaintzako ustiatagia jartzeko aukera izanik.

BOSGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

13.- Ondare-erantzukizuneko hainbat erreklamazio

A) Oscar Sánchez Urdangarinek egindako ondare-erreklamazioa

OSCAR SANCHEZ URDANGARIN jn.ak ondare-erreklamazioa aurkeztu du, udalari 31,35 euro ordaintzeko eskatu dio, udaltzain lanetan ari zela betaurreko graduatuak hautsi baitzizkioten. Gertaera 2004ko abenduaren 15ean izan zen, Andonaegi, 12. zk.ko 1. etxebizitzan.

Udaltzainburuak egindako txostenean gertaera horiek baieztatzen dira. Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- OSCAR SANCHEZ URDANGARIN jn.ari 213,35 euro ordaintzea, A-197/05 partidatik 2101-0048-28-0122273758 kontu zenbakian.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari janikaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

B) Agustín Merino Ramos jn.ak egindako ondare-erreklamazioa

AGUSTIN MERINO RAMOS jn.ak ondare-erreklamazioa egin du, hesi batek bere kotxean eragindako kalteengatik. Izan ere, 2005eko otsailaren 15etik 16rako gauean, Andonaegi kalean dagoen etxeko paretari itsatsitako hesiak haizearen eraginez haren kotxea jo zuen (6729-BGH matrikula duena); kotxea espaloi gainean aparkatuta zegoen lerro hori jarraia duen leku batean.

Udaltzaingoak egindako txostenean ondokoa baieztatzen da: otsailaren 12 eta 13an inauterietako desfileengatik trafikoa desbideratu behar zela-eta, horren berri ematen zuen hesi bat jarrita egon zen. Hesi hori otsailaren 14an goizean kendu zuen Zerbitzuetako Sailak, beste zenbati hesirekin batera.

Horregatik guztiagatik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- AGUSTIN MERINO RAMOS jn.aren erreklamazioa ezestea, Udaltzaingoaren txostenean oinarrituta; erreklamatzailerak aipatutako gertaerak ez direlako egiaztatu.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari janikaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

C) Mapfre aseguru-mutualitateak egindako ondare-erreklamazioa

MAPFRE aseguru-mutualitateak erreklamazio egin zuen 2005eko otsailaren 2ko sarrera-datarekin: 88,60 euro eskatu zituen, Margari De la Torre Molino and.aren kotxean (SS-3779-AV matrikula duena) sorutako kalteengatik. 2004ko irailaren 8an kotxea Eskalantegi kalean aparkatuta zegoen eta



udaltzainek eskuineko ispilua mugitu zuten, kamioi bati lekua egiteko; horren ondorioz ispilua bere tokitik atera zen.

Udaltzaingoaren txostenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- MAPFRE aseguru-mutualitateak egindako erreklamazioa zati batean baiestea, eta eskulanari dagokion kopurua (17,40 euro) ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari janikaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

- Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak ondokoa erabaki du:

14.- Birpartzelazio premiarik ez delako akordioa. Araneder 01

Gai hau mahai gainean geratu da; izan ere, aurrez hitzarmena bete beharra dago, xehetasun azterketa bideratu eta onartzeari dagokionez; eta Eusko Jaurlaritzari eskatuko zaio.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 10,15etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.